

## **2021eko MAIATZAREN 4an EGINDAKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO KONTSEILU ERREKTOREAREN BILKURAREN AKTA.**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2021eko maiatzaren 4ko 12:30ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da Zoom bidez, eta honako pertsona hauek bertaratu dira:

- **Presidentea:** Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea.
- **Bokala:** Iker Atxa Zaitegi jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakartzaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarrearen ordezkari gisa.
- **Bokala:** Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarrearen ordezkari gisa.
- **Idazkaria:** Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Era berean, gai-zerrendan dauden gaiak aurkezteko laguntza teknikoa eskaintzearen, honako hauek ere bertaratu dira, gonbidatuta: Jose Antonio Rodríguez Ranz jauna, Giza

Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, Blanca Pérez Jiménez andrea, eLankidetzako Administrazio eta Zerbitzuetako arduraduna, Alazne Camiña Izkarria, eLankidetzako Koordinazio Teknikoko arduraduna, eta Cristina Ocio Urrutia andrea, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko auditorea.

## **Sarrera.**

eLankidetzako eta haren Kontseilu Errektoreko presidentek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. *2021eko otsailaren 16an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.*
2. *2020ko urteko kontuak onartzea.*
3. *Lanpostu Zerrenda aldatzeko proposamena onartzea.*
4. *2021eko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.*
5. *EAEko Administrazio Orokorrarekin sinatu beharreko hitzarmenak onartzea.*
6. *2021eko soldata-igoerari buruzko informazioa.*
7. *Garapenerako lankidetzari buruzko euskal legea aldatzeko prozesuari buruzko informazioa.*
8. *Galde-eskeak.*

Presidenteak eman dio hasiera bilkurari, eta adierazi du aipatutako dokumentazio guztia ahal izan den aurrerapenez helarazi zaiola Kontseilu Errektore honi.

### **1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea.**

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2021eko otsailaren 16ko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

### **2. 2020ko urteko kontuak onartzea.**

Onartuak izan daitezten aurkeztu dira eLankidetzaren urteko kontuak. Cristina Ocio auditoreak aurtengo 2020ko mugari adierazgarrienak azaldu ditu. COVID-19 pandemiak aurrekontuaren egikaritzapenean izan duen eraginaz gain, obra egin izana eta Gaztelako Atariko 15. zenbakira aldatu izana nabarmendu behar da, bertan baitago erakundearen egoitza berria.

Era berean, erakundearen izaera publikoa eta lankidetzaz-jardueraren sustatzaile gisa egiten duen jardunaren izaera kontuan izanda, eta Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak onartutako 9/2013 Zirkularra aplikatuz, 2021. urte honetako

2020. urteko ordainketei dagokien periodifikazioa 5.464.396,80 € da guztira, COVID 19 mundu-pandemiak eragindako igoeraren ondoren.

Kontuen emaitza negatiboari buruzko galdera egin du Josu Urrutia jaunak, eta auditoreak adierazi du aurrerantzean emaitza negatiboa izango dutela eraikinaren amortizazioa dela eta.

Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsonen aldeko botoekin onartu da, Patricia Barcena andrearena izan ezik, abstenitu egin baita.

### **3. Lanpostu Zerrenda aldatzeko proposamena onartzea.**

Blanca Pérez andreak jakinarazi du 2021eko aurrekontuaren onarpenean agentziaren plantilla guztira 8 plaza gehiagorekin handitu zela 2021. urterako: lankidetzateknikari lanpostuaren 2 zuzkidura, komunikazio-teknikari lanpostuaren zuzkidura 1, administrari lanpostuaren 4 zuzkidura, eta administrari informatiko lanpostuaren zuzkidura 1.

Plazak sortzeko dagozkion tramite guztiak egin ondoren, kontseilu honetan onartua izan eta ondoren EHAAn argitaratua izan dadin aurkeztu da kontseilu honetan lanpostu-zerrenda berria.

Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

### **4. 2021eko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.**

Bi zuzeneko diru-laguntza aurkeztu dira onartuak izan eta Gobernu Kontseiluari aurkeztea proposatzeko.

Lehenak 500.000 euroko zenbatekoa du, eta GAVI Txertatzearen aldeko Mundu Aliantzari laguntza eskaintzea du helburutzat, COVAX-AMC taldeko kide diren herrialdeei Covid 19aren aurkako txertoen erosketan laguntzeko. 21/2021 Legez Besteko Proposamenari erantzuten dio proposamen horrek, mundu osoak txertoak modu unibertsalean lortzeari buruzkoa, Eusko Jaurlaritzak martxoaren 11n onartutakoa.

Bigarrenak 175.000 euroko zenbatekoa du, Guatemalako Giza Eskubideen Prokuradoretza instituzionalki sendotzen lagundu nahi du, barne-gatazka armatuan desagertutako pertsonen kasuak ikertzeko, Guatemalako Auzitegiko Antropologiako Fundazioaren bidez. Desagertutako pertsonen bilaketan aurrera egiteko koordinatuko dira bi egiturak, eta eskubideen titularrak artatzeko gaitasunak gehitzeko.

Alazne Camiña andreak xehetasun handiagoz adierazi ditu aurrekontuak eta dagozkion jarraipen-adierazleak.

Bozkatu egin da eta aho batez onartu dira bi proposamenak, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztea proposatu da, onar ditzan.

## **5. EAEko Administrazio Orokorrekin sinatu beharreko hitzarmena eta Jardunen Protokolo Orokorra onartzea.**

Honako proposamen hauek aztertu behar ditu Kontseilu Errektoreak onartuak izan daitezen:

### **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA GAZTEAK SENTSIBILIZATZEKO EKINTZAK BULTZATZEKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ETA EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMAREN EGIKARITZAPENAREN ARLOAN.**

2020ko edizioan, krisialdi sanitarioa zela-eta, ezinezkoa gertatu zen Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa aurrera eramatea, eta, hori horrela, hitzarmenaren jardun-markoa zabaltzea proposatu da hitzarmenaren helburua lortzea ahalbidetuko duten ekintza berriak aurrera eramateko.

Horrenbestez, bi alderdiek ekintzak garatzeko lankidetzan jarraitzeko duten borondatea kontuan izanda, kontratu berri bat sinatzea dagokio, bi alderdien obligazioak eta koordinazio-tresnak zehazte aldera, baita aplikatzekoa den araudia eguneratzeko ere.

Honako hauek dira proposatutako ekintzak: 1. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa; 2. Beste sentsibilizazio-ekintza batzuk lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren arloan; 3. Lankidetzaren teknikoak; 4. Esperientziak trukatzeko.

### **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN OSASUN SAILAK, OSAKIDETZA EUSKAL OSASUN ZERBITZUAK ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK OSASUN-ARLOAN SINATUTAKO JARDUNEN PROTOKOLO OROKORRA.**

Jardunen egungo Protokolo Nagusiaren helburua lankidetzaren marko bat ezartzea eta definitzea da osasun-arloan sail eskudunaren, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren artean interes erkideko arloak definitzeko lankidetzaren sanitarioaren alorrean, eta, ondoren, Hegoko herrialde pobretuetako herritarren premiei erantzuten dieten ekimenak, ekintzak, proiektuak eta lankidetzaren teknikoak programak burutzeko, eta estaldura sanitario unibertsal bat lortzeko lagungarriak izango direnak.

Honako hauek dira proposatutako ekintzak: 1. EAEn emandako laguntza sanitarioa; 2. Prestakuntza EAEko langile sanitarioen lankidetzaren arloan; 3. Hegoko herrialde pobretuen langile sanitarioen prestakuntza; 4. Euskal langile sanitarioen parte-hartzea lankidetzaren eta ekintza humanitarioko proiektuetan; 5. Laguntza teknikoak, eta 6. Esperientziak trukatzeko.

Paul Ortegak zehaztasun handiagoarekin azaldu ditu bi protokoloak.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

## **6. 2021eko soldata-igoerari buruzko informazioa.**

Beatriz Artolazabal andreak azaldu du Gobernu Kontseiluak 2021eko martxoaren 16an erabaki zuela Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioeko sektore publikoaren zerbitzupeko langileen ordainsariak 2021erako igotzea. Igoera % 0,9 izango da 2020ko abenduaren 31n ezarritako ordainsariekin, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginez, eta igoera horren aldeko txostena eman dute Lan Harremanetako Zuzendaritzak eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak.

Kontseilu Errektore honi jakinarazi zaio eLankidetzan aplikatu dela eta martxoko nominan ordaindu dela.

## **7. Garapenerako lankidetzari buruzko euskal legea aldatzeko prozesuari buruzko informazioa.**

2020-2024 aldiko gobernu-programak –XII legegintzaldia. "Euskadi martxan"– 105. konpromisoan ezartzen du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Lege berri bat lantzea eta onartzea. 2021eko urteko arau-planean du isla konpromiso horrek eta Eusko Jaurlaritzak egungo arau-markoa berrikusteko prozesuari hasiera emateko borondatea islatzen du.

Legea aldatzeko prozesuaren xehetasuna azaldu du Paul Ortegak eta gaur egun duen egoera. Aipatutako hamar lan-arloen inguruan galdetu du Patricia Bárcena andreak, eta jakinarazi zaio Kontseilu Errektore osoari helaraziko zaiola prozesua aurreratuagoa dagoenean.

## **8. Galde-eskeak.**

Kontseilu Errektorearen hurrengo bilera ekainaren 22ko 12:30ean izango dela jakinarazi da.

Ez denez beste gairik planteatu, bilkura amaitutzat jo da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehenean paragrafoan aurreikusitakoa betetz, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE<sup>o</sup> Beatriz Artolazabal Albeniz andrea,  
Agentziako eta haren Kontseilu  
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektoreko idazkaria  
GLEAko zuzendaria